

## Sareen Sareak eta UNICEFek indarrak batu dituzte haurren eta nerabeen eskubideen alde

- Bi erakundeek gizarte kohesionatua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzeko konpromisoa indartu dute. Pertsona guztien eskubideak errespetatzen dituen gizartea eraikitzeko helburuarekin, bereziki zaurgarrienenak, haurren kasuan bezala.
- Harreman-esparru egonkor bat ezarri dute, herritarren konpromiso aktiboa bultzatzeko ongizate kolektiboarekin eta eraldaketa sozialarekin.

**Bilbo, 2023ko martxoak 6.** Sareen Sareak eta UNICEFek lankidetzeta-hitzarmena sinatu dute bi erakundeen arteko harremanak sendotzeko eta arautzeko. **Borja Doval Sareen Sareko** presidentek eta **Isidro Elezgarai UNICEF-Euskal Herriko Batzordeko presidentek** aliantza sinatu dute gaur, Bilbon.

Hitzarmen berri horri esker, arautu egiten da azken urteotan dagoeneko ematen ari den lankidetzeta-harremana: bai **elkarrizketa zibilaren** esparruan eta **Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren** esparruan, bai **UNICEFek** Sareen Sareko hainbat batzordetan parte hartzean. Azken kasu horretan, nazioarteko erakundeak Sareen Sarearen Haurren, Nerabeen eta Gazteen Eskubideen Batzordean parte hartu duela azpimarratu behar da.

Akordioak “eragile sozial eta instituzional guztiekin hitz egiteko gaitasuna duen Euskadiko Hirugarren Sektore Sozial bateratuagoa, indartsuagoa eta aitortuagoa” egituratzen laguntzen duela adierazi dute Sareen Sareak eta UNICEFek.

Bi erakundeetako presidentek nabarmendu dute “**etengabe eta modu sortzailean borrokatzeko konpromisoa indartzen dutela, gizarte kohesionatu, inklusibo, solidario eta parte-hartzailea sustatzeko**. Pertsona guztien eskubideak berdin errespetatzen dituen gizartea, zaurgarrienei arreta berezia eskainiz, haurren kasuan bezala”.

Borja Doval Sareen Sareko presidentek gogorarazi duenez, “lankidetzeta-hitzarmen berri honen bidez harreman egonkorreko esparru bat ezartzen da ongizate kolektiboarekin eta eraldaketa sozialarekin herritarren konpromiso aktiboa bultzatzeko”.

Bestalde, UNICEF-Euskal Herriko Batzordeko presidente Isidro Elezgarai azpimarratu du “aurrera egin behar dugula gizarte kohesionatu batean, non haurren egoera kontuan hartuko den eta hauek gizarte-eraldaketa beraren partaide izango diren. Horregatik, elkarrekin egingo dugu aurrera, inor atzean ez uzteko”.



**Sareen** sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi

## **Haurren, Nerabeen eta Gazteen Eskubideen Batzordea**

2020tik, UNICEFek eta haurren eremuan lan egiten duten Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko hainbat sarek lan egin dute Sareen Sareko Haurren, Nerabeen eta Gazteen Eskubideen Batzordean. Hirugarren sektorre sozialerako sareen eta erakundearen arteko **lankidetzarako gune bat da, Euskadiko haurren eta nerabeen eskubideen bermean aurrera egiteko**. Horretarako, ekarpen esanguratsuak egiten dira haur eta nerabeei eragiten dieten politika publikoetan, erkidegoko, lurralde historikoko eta tokiko esparruetan. Ekarpen horiek guztiak, euskal haur eta nerabeen bizitzan benetako aldaketak eragitera bideratuta daude, Familiaren eta Haurren aldeko Euskal Ituna eta Haurren eta Nerabeen Legearen aurreproiektua oso kontuan hartuta.

Beste ekintza batzuen artean, Batzorde honek ekarpen garrantzitsuak egin ditu etorkizuneko **Gazteriaren Euskal Legearen** edo hurrengo **Hezkuntzaren Euskal Legearen** arauetara. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia edo **haurren eta nerabeen aurkako indarkeriaren aurkako Euskal Estrategia** ere landu ditu, besteak beste.

## **Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala**

Hirugarren Sektorre Soziala **irabazi-asmorik gabeko herri-ekimeneko erakundeek osatzen dute** eta helburua da gizarteratzea eta zaugarritasuneko edo bazterkeriako, babesgabatasuneko, desgaitasuneko eta/edo mendekotasuneko egoerak bizi dituzten pertsonen, familien, kolektiboen eta komunitateen **eskubideak modu eragingarrian erabili ahal izaten bultzatzea**.

Egun, **4.000 erakundetik gora** osatzen dute, **40.000 lanpostu** sortzen ditu, **160.000 boluntario baino gehiago** daude eta **Euskadiko % 2,4ko BPGren<sup>1</sup>** baliokidea den bolumena kudeatzen du.

## **INFORMAZIO GEHIAGO ETA ELKARRIZKETAK**

Sareen Sarea

Jon Txarroalde

688 729 340

[komunikazioa@sareensarea.eu](mailto:komunikazioa@sareensarea.eu)

UNICEF-Euskal Herriko Batzordea

Ainhoa Lejonagoitia

646 853 045

[alejonagoitia@unicef.es](mailto:alejonagoitia@unicef.es)

<sup>1</sup> 2021eko Barometroaren Txostena. *Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokia*. 2021eko abendua.